



# SOKAMUTURRAREN HISTORIARI BEGIRADA

Ohitura handikoa da sokamuturra Tolosan; 1934.ean Txinparta elkarteak berreskuratu zuen ekitaldia >3

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata

2008-02-02

VI.URTEA 1.352.ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA



WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzokoan ere hainbat haur jaialdi egin zituzten eskualdean; zezen-plaza jendez bete zen eta karrozekin azken ukituak ematen ari dira inauterizaleak. I. TERRADILLOS/ E. EZEIZA

## FESTA GIROAK EZ DU ETENIK... ETA ONENA IRISTEAR DAGO

**INAUTERIAK 2008** Gaur arratsaldean haur danborrada izango da ekitaldi nagusia eta gauen, berriz, helduena; atzokoan ere festak ez zuen atsedetik hartu eta gazteak izan ziren protagonistak zezenekin eta txarangekin 6-7



## A Argazki zaharra



## El Terete txaranga, 70. hamarkadan

**TOLOSA** Argazkian, El Terete txaranga Plablo Gorosabel kaleko musika eskolako eraikinaren kanpoaldean. 70. hamarkadan sortu zuten Urdiri-

Txiki koadrilakoek. Haien ezkontz eguneko jantzia erabiltzen dute eta Astelenitan ateratzen dira.

### » GARRAIO PUBLIKOA

#### Gaur

##### ■ Hiribusa.

Ohiko ibilbideak egingo ditu eta azken bidaia 22:00etan izango da.

##### ■ Tolosaldea Bus.

Gaueko zerbitzu berezia izango da:

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre-  
Amarotz- Alegia- Amezket-  
I-kaztegieta 00:00etan,  
02:00etan eta 03:30ean.

- Tolosa (Zumardi Txikia)- lurre-  
Amarotz- Ibarra- Berrobi- Eldua-  
Elduain- Berastegi 01:00etan,  
02:45ean eta 04:15ean.

##### ■ TSST.

Zerbitzu berezia:

- Tolosa (Santa Klara)- Anoeta-  
Irua- Villabona- Zizurkil- Asteasu  
23:30etik 04:30era 30 minutuero.

- Asteasu- Zizurkil- Villabona- Iru-  
ra- Anoeta- Tolosa 23:00etatik  
04:00etara 30 minutuero.

##### ■ Trena.

- Eguneko ohiko ordutegiak gain,  
errefortzu zerbitzua izango da:  
Irun 22:10- Tolosa 23:11 eta Brin-  
kola 22:50- Tolosa 23:30.

- Gaueko zerbitzu berezia:  
Tolosako geltokia- Irun 01:00; To-  
losa- Donostia 02:00; Tolosa-  
Irun 03:00; Tolosa- Donostia  
03:50; Tolosa- Donostia 04:55;  
Tolosa- Irun 05:00; Tolosa- Irun  
05:55.

Tolosa- Brinkola 02:00etan,  
03:50ean eta 05:20ean.

## «Soinua ateratzen duten osagarriak eramaten dituzten mozorroak gustatzen zaizkit»

LARA LOPEZ ANSORENA | Inauterizalea

**Tolosa** » Gogotsu dago tolosarra Zaldunita iristeko; izan ere, «txaranga doinuak entzun eta festarako gogoia pizten zait».

#### NOELIA LATABURU

Bartzelonan bizi da egun Lara Lopez Ansorena (Tolosa, 1982) baina Inauteri taupadak gertuegi sentitzen ditu. Aurtengoan Inauterietarako Tolosara etortzeko zalantzan zegoen. Ezagutzen dutenek, ordea, bazekiten Zaldunitan txarangen atzean saltoka hasteko hitzorduari ez ziola muzin egingo.

#### Zer dira zuretzat Tolosako Inauteriak?

Alaitasuna, ondo pasatzea, jendearekin egotea, tolosarrekin poza elkarbanatzea...

**Zer da gehien gustatzen zaizuna?** Dударik gabe, txarangen atzetik kalez kale ibiltzea. Zezen-plazatik jendearekin saltoka jaistea eta nire amarekin bertan topatzea, eta ez etxean...

#### » DI-DA BATEAN

- **Ostegun Gizena.** Txistorra jatea.
- **Ostiral mehea.** Ajea...
- **Larunbata.** Kanpotarrentzat.
- **Zaldunita.** Eztanda.
- **Astelenita.** Aisialdi taldeak.
- **Astearrita.** Afofia eta agujetak.
- **Hausterre Eguna.** Hurrengo urterako gogoak.

#### Eta gustatzen ez zaizun zerbaite al dago?

Bai, zezen-plazan sortzen den giroa izugarri gustatzen zait denak txarangekin batera dantzatzeko. Bestela, etxetik bi trapu jantzi eta batez ere soinua ateratzen duten gauzak ateratzea gustatzen zait, beti ahotsik gabe geratzen naiz eta.

#### Egunik gogokoena ba al duzu?

Zaldunita, hiru egunetik energia gehien dudana eguna delako, ahotsa oraindik badut eta saltoka aritzeko gogoz egoten naizelako. Herriarren eguna da. Diana ere asko gustatzen zait, ai, beranduxeago izango balitz... [je, je] Nire amak ohetik altxatzen dit baina asko kostatzen zait esnatzea...

**Berezperako egunetan txarangen CDa jarri eta dantzatzeko zara ere kontatu didate. Zer sentitzen duzu une horietan?** Tolosan zaudenean, aurreko egunetan jada somatzen duzu kaleak apainduta, bezperako prestaketa guztiak... Baina kanpoan zaudenean ez duzu horrelakorik sentitzen. Horregatik etxera heldu eta txarangen CDa jarrita gorputza berotzen hasten zara. Nolabait Tolosan sentitzeko modu bat da, musika entzun eta berdin zait bakarrikedo norbaitekin nagoen...



HITZA

ten diet baina herritarrak festan erabat sartzen direla azaltzen diet, herria geratu egiten da.

#### Noizbait galdu dituzue Inauteriak. Nola sentitu zinen?

Bai, hala da, Lisboan nengoan eta

Inauteriak galdu nituen. Jendea erota nengoela uste zuen. Nire ahizpak deitu zidan txarangen doinuekin eta negarrez hasi nintzen. Orduantxe erabaki nuen, ahal banuen behintzat, Inauteriak ez

nituela berriz ere galduko, egun batzuetan behintzat Tolosara hurbilduko nintzela.

#### Inoiz jantzi duzun mozorrorik gogokoena zein da?

Gustatuko litzaidakeena, dudarik gabe, txarangarena da, baina nire koadrilakoek boikota egiten didate. Bestela, etxetik bi trapu jantzi eta batez ere soinua ateratzen duten gauzak ateratzea gustatzen zait, beti ahotsik gabe geratzen naiz eta.

#### Egunik gogokoena ba al duzu?

Zaldunita, hiru egunetik energia gehien dudana eguna delako, ahotsa oraindik badut eta saltoka aritzeko gogoz egoten naizelako. Herriarren eguna da. Diana ere asko gustatzen zait, ai, beranduxeago izango balitz... [je, je] Nire amak ohetik altxatzen dit baina asko kostatzen zait esnatzea...

#### Berezperako egunetan txarangen CDa jarri eta dantzatzeko zara ere kontatu didate. Zer sentitzen duzu une horietan?

Tolosan zaudenean, aurreko egunetan jada somatzen duzu kaleak apainduta, bezperako prestaketa guztiak... Baina kanpoan zaudenean ez duzu horrelakorik sentitzen. Horregatik etxera heldu eta txarangen CDa jarrita gorputza berotzen hasten zara. Nolabait Tolosan sentitzeko modu bat da, musika entzun eta berdin zait bakarrikedo norbaitekin nagoen...



Ohitura handikoa da sokamuturra Tolosan. XIX. mendearen bukaeran kendu bazuten ere, 1934. urtean Txinparta elkarteak berreskuratu zuen berriro ekitaldia. Egun Plaza Berrian ateratzen dituzte Markes de Saka-Lasturko Zezenak ganadutegikoek.

# Hementxe dala, hementxe dala...

IMANOL GARCIA

**S**okamuturrari abesti eza-gunak egin zaizkio: *Hementxe dala, hementxe dala... Kalean gora, kalean behera zezena...* Izan ere, ekitaldi honek urte askotako historia du Euskal Herri osoan eta Tolosan ere bai. Juan Bautista Aranzabe Matek bildutakoaren arabera, ostiral guztietan ateratzen zen sokamuturra, Garizumakoetan ezik. Ohitura hori XVIII. mendean ezeztatu zen eta igandetan jarri zuten. 1891. urtean guztiz kendu zuten.

Tolosan sokamuturra Txinparta elkarteak berreskuratu zuen, 1934. urtean. Arostegetia eta Antonio Lekuona kaleetan ibiltzen zuten, baina Aranzabek azaltzen duenez, Alde Zaharreko kale guztiak ezagutu ditu ekitaldiak: Plaza Berria, Euskal Herria plaza, plaza Zaharra eta Solana kalea, kale Nagusia, Agintari kalea (Ortzadar elkarte) eta Santa Maria kalea (Kabi Alai elkarte).

## Markes de Saka

Lehenengo urteetan zezenak menditik etortzen ziren, Lasturretik (Deba, Gipuzkoa). Olarraindik begiak itxita zituztela, behiei eta astoei lotuta. Mende honetan Lasturko Markes de Saka ganadutegitik ekarri dituzte batez ere. Antonio Artetxe eta ondoren bere seme Asintxo Artetxe izan dira nagusiak eta egun Asier Arrizabalaga da ganadutegiaren arduraduna. Lasturko ganadutegiaren orde, urte batzuetan Jaizkibeletik eta Elduaindik ere ekarri izan dituzte.

Antonio Artetxek omenaldia jaso zuen Udalaren partetik 1966. urtean. Aranzabek gogoratzen duenez, «gizon txikia zen, hiztuna, bizia, blusa zuri eta luzearekin, abarkak jantzita ibiltzen zen bere akuiluarekin». 50 urte inguru aritu zen Artetxe zezenak eta bigantxak ekarri Tolosara.

## 985 buru 27 urteetan

Datuei dagokionez, esaterako, 1971. urtean 40 zezen atera zituzten, eta hurrengo urtean 11 Ostegun Gizenean bakarrik. Azken 27 urteetan 985 zezen edo bigantxa atera dituzte.

Aurten, bestalde, 100 urte betetzen dira egungo zezen plazan zezenak atera zituztela Inauterietan. 1908. urtean izan zen, beraz, eta 19 zezen atera zituzten, 895 pezeta ordainduz. Biurte beranduago Ostegun Gizeneko eta Astelenitako zezen ekitaldiak kendu zituzten, baina geroago berreskuratu egin ziren.

Sokamuturrari dagokionez, Txinparta elkartearen egun ere badaude burdinezko biuztai, Arostegetia kalean bat eta Erremontari kalean bestea. Ustez, soka bertan



Inauterietan, 1934. urtean, plaza Berrian sokamuturra eramaten. JESUS ELOSEGIREN ARGAZKI BILDUMA



lazo Astelenitan, plaza Berrian sokamuturra. I. GARCIA

lotzen zen. Gainera, hasiera batean uztaiia Txinparta elkartearen barruan zegoen.

## Handienak, Zaldunitan

Egungo Inauterietan Plaza Berrian ateratzen da sokamuturra, Zaldunitan, Astelenitan eta Asteartitan, 10:30ean. Asier Arrizabalagaren Markes de Saka-Lasturko Zezenak ganadutegiko zezenak eta bigantxak izaten dira. Arrizabalagak berak 22 urte daramatza Tolosara etortzen, azken 10 urteak ganadutegiko arduradun bezala.

Egunero aldatzen dira ateratzen dituzten zezenak. Zaldunitan han-

diagoak ateratzen dira bai sokamuturrean eta bai zezen-plazan. «Kanpoko jendea etortzen da, izkingileak eta guzti», dio Arrizabalagak. Astelenitan, «normalean herriko jendea bakarrik etortzen denez, txikiagoak botatzen ditugu». Asteartitan, «gau pasako jendea egoten denez, handixeagoak bota behar dira».

Sokamuturrera eramaten den ganadua eta zezen-plazara eramaten dena ezberdina izaten da. «Normalean aurrena zezena zezen-plazara eramaten da. Gero kalean ateratzen ditugu. Kalean funtzionatzen ez badu, kendu egiten

ditugu». Behi batzuk daude zezen-plazarako balio dutenak eta beste batzuk kalean, sokamuturrean ateratzeko. Zezenak edo behiak baterako edo besterako balio duten jakiteko, Arrizabalagak probatu egiten ditu herri ezbedinetako festetan.

Zezenak ez dio Inauterietan behin ere aldegin Arrizabalagari, baina Kilometroak Tolosan egin zirenean bai: «Baten batek atea ireki zuen eta Kilometroetako zirkuitura joan zen zezen txiki bat eta Ibarra harrapatu genuen. Bestela, ez naiz gogoratzen Tolosan zezenik aldegin duenik».

## Lege berria

Sokamuturrerako lege berri bat jartzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak. Aldatu nahi dituzten baldintzen artean, alde batetik, aseguruarena da. 90.000 eurotik 900.000 eurotaraino aldatu nahi dute. 16 urtetik beherakoek ez dute nahi parte har dezaten. Bi ambulanzia egotea nahi dute, horietako bat sendagilearekin. «Hori Tolosa batek edo Azpeiti batek ordainduko du, baina beste herri txiki batzuk ezin dute ordaindu», dio Agirrezabalak. «Medikuaren kostua bakarrik 500 euro izan daiteke». Beste baldintza bat ordutegiaren inguruan da, hau da, zezena argi naturalarekin ibiltzea.

Orain gutxi bilera bat izan da Eusko Jaurlaritzan lege berriaren inguruan eta bertan egon da Arrizabalaga. «Ezperantza pixkat eman digute. Ordutegiaren inguruan, pentsatzen zuten festa guztiak udan zirela, baina Tolosan eta Azpeitian Inauterietan izaten dira zezenak eta gai horretan konponduko ginela esan zuten». Adinaren inguruan, Arrizabalagak dioenez, «badakite haur asko ateratzen dela eta afizioa hartzen dutela. Haurrek eskolan bezala edo kirol batean bezala, gaztetatik hasi behar dute. 16 urterekin ez da bat hasten zezenen aurrean jartzeko».

Arrizabalagak gaineratzen duenez, «adinaren kontuan zerbait egingo dutela esan dute eta aseguru ere jaitxi egingo dutela. Halere, politikoa dira eta gero ikusi beharko da zer egiten duten».





## Eneko Galarragaren euroagindua otsailaren 26an erabakiko dute

**Villabona** » Frantziak «euroagindua zehatzagoa izateko» informazio gehiago eskatuko dio Espainiari.

### ERREDAKZIOA

Atzo, 09:00etan Eneko Galarragaren sendia Paueko Audentziara joan zen euroaginduaren inguruko epaiketaren eguna eta baldintzak jakitera. Bertan, senideek esan dutenez, «Frantziako justiziak Espainiakoari probak eskatu dizkio, euroagindua zehatzagoa egingo luketen probak». Otsailaren 26ra bitarteko denbora du Espainiako justiziak lan horretarako eta egun horretan Eneko Galarragak Pauera joan beharko du berriz ere bere aurkako euroaginduarekin zergertatuko den jakitera. Bien bitartean, 15 egunetik behin Donibane Lohitzuneko komisaldegira joan behar du sinatzera eta Atlantiar Pirinioetako Departamendutik ezin izango du atera.

## Jose Angel Urkizu izendatu dute Elduaingo udal kudeaketa batzordeko buru

### ERREDAKZIOA

Atzo hartu zuten erabakia ezohiko bilkuran. Batzordea gainontzeko hauek osatuko dute: Miren Elorza, Iñaki Kerejeta, Eneko Imaz eta Rafael Gurrutxagak. Pasa den asteartean kudeaketa batzordea osatzea erabaki zuten Elduainen, Udala oraindik osatzeke zegoela-eta. Iazko maiatzeko udal hauteskundeetan PPK lortu zuen boto ofizial bakarra; 83 boto baliogabek izan ziren, eta 24 zurizkoak. PPK, boto harekin, lau zinegotzietatik zituena, baina Lizartzan ez bezala, uko egin dio hasieratik udal karguak hartzeari.

**ARAMBURU**  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Bidebieta auzoan, guztiz eraberritua.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza garajearekin, Trinkete auzoan.  
Salgai (Tolosa). Etxebizitza, Kale Nagusian, igogailuarekin.  
Salgai (Alegia). Etxebizitza, oso eguzkitsua.  
Salgai (Tolosa). Garajeak, San Frantzisko eta Leidor azpian.  
Salgai (Ibarra). Garajeak, Idoiaga auzoan.  
Salgai edo Alokatzeko (Lasarte). Lokala, tximiniarekin, erdigunean.  
Alokatzeko (Tolosa). San Frantzisko, lurre eta Araba etorbidean.  
Alokatzeko (Ibarra). Pabilloi industrialia. Leaburu bidean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

# Eskualde osoa Inauterietan



Amezketan, desfilea eta merienda izan zuten. N. URBIZU



Adunan emanaldi berezia eskaini zuten herriko txikiak. I. TERRADILLOS



Zizurkilen hiru ikastetxetako haurrak elkartu ziren atzo, Joxe Arregi plazan. I.T.



## Giro polita eta jende ugari xexen festan

**INAUTERIAK** » Hasiera bikaina eman zion Ostegun Gizenak Inauteriei, giro ezinhobearekin, jendearen parte-hartzearekin, eta eguraldi politarekin, eta hurrengo eguna, atzokoa, Ostiral Mehe Eguna ajearren eguna izan

zen askorentzat. Dena den, festak etenik ez duenez, atzo ere izan zen zertaz gozatua, eta horren adibideetako bat zezen-plazan topa zitekeen. Aurreko egunean bezala, jende ugari izan zen bertan. I. TERRADILLOS



Karroza gehienak amaituta daude, eta prest kalera ateratzeko bihar. ESTIEZEIZA

# Azken ukituak eman eta kalera

**Inauteriak**» Karroza eta konpartsak bihar aterako dira kalera lehendabiziko aldiz; Ferialekuan azken ukituak ematen ari dira.

## ESTIEZEIZA

Tamagotxiak, erromatar garaiko egoitzak, trainerak, autobus dibertigarriak... aterako dira bihar, etzi eta etzidamu Tolosako kaleetara. Denbora eta diru asko gastatu du jendeak karroza eta konpartsak prestatzen. Joan den urtean erlauntz zena, aurten belar meta bilakatu daiteke. Tolosarren imajinarioak eta abileziak muga gutxi dituztela erakusten dute urtetik urtera. Baina normala den bezala, hau guztia prestatzeko eta eraldaketa hauek egiteko denbora asko behar da. Hala, ordu asko eta asko igarotzen dituzte tolosarrek Ferialekuan.

Inauteriak hasita badaude ere, eta Zaldunitarako egun bakarra geratzen bada ere, oraindik jendea, azken ukituak ematen ari da beraien karrozei eta konpartsei.

## Karrozen antolaketa kalean

Aurten, orotara, 9 karroza handi aterako dituzte kalera. Baina hauek ez dira batera aterako. Esaterako, Zaldunita egunean, bi zuzenbidetan aterako dira. Alde ba-

retik, 11:00etan, Gorriti aldetik, hau da, apeaderotik San frantzisko aldera hiru karroza aterako dira, orden honetan: *Chiva Colombiana*, *La cagadita de Roma* eta *Spice Girls* izenekoak. Garai eta egun berean, baina Hirukide-Jesuitien ikastetxetik beheruntz aterako dira: *Irb Rugby*, *Oria World Cup 2015* eta *Taberna Charracha*.

Astelehenetan berriz, falta diren hiru karrozak aterako dira kalera. Hauek aisialdi taldeen atzetik aterako dira. Hau da, lehendabizi, 11:00etan, aisialdi taldeetako haurrak aterako dira beraien emanaldi eskainiz, eta ondoren, karrozak. Hauek goitik beherako bidea egingo dute. Lehendabizikoak irretzen *Xagutxo Lirainak* izango dira. Ondoren, *Banghra* izeneko karroza aterako da eta azkenik, *Lizartzako Udala*.

Asteartitan, Zaldunitan aterako karrozak jaitsiko dira kalera, baina aldaketa batzuekin. Denak 11:00etan aterako dira, baina igan-dean, Gorrititik abiatu zirenak, oraingoan San Frantziskotik irten-go dira, eta alderantziz bestek.



Ongi pasatzeko aukera ere badaute prestatetetan. E.E.



Karroza handiak nahiz txikiagoak aurki daitezke. E.E.



Karrozen artean autobus erraldoiak ere badaude. E.EZEIZA



Aisialdi taldeen plataformak ere aurki daitezke. E.EZEIZA



Kalera atera arte ezin da jakin zein den gaia batzuetan. E.EZEIZA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

## ZIPRIANO VIXENTE HERNANDEZ

Ez agurrik,  
ez adiorik,  
gero arte baizik.

Langaitz Ikastola

ERRENTERIA  
2008ko  
otsailaren 2a





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



## Gazteenek festari tinko utsiz

Ostiral Mehea Inauterietako egunik ahulena dela diote askok baina gazteenek kontrako erakutsi nahi izan dute, izan ere, atzokoan zezen-plaza leporaino beteta zegoen xexenetan. Gero ere txaranga-ekin kalejiran atera ziren.

TERRADILLOS

## Tolosako kaleak eta txiza usaina

Ostegun Gizena parranda eguna dela dudarik ez dago. Baina parrandak bere mugak ditu eta parrandazale askok muga horiek gainditu egin dituzte. Ostiral goizean lanera doan eta kalean bueltak dabilen jendeak (dendariak, bulegora doazenak,...) igerriko zuten ziurrenik kaleetan geratzen den txiza usaina. Une eta leku askotan jasanezina izaten da usain hori... Ez al dituzte nahiko komun jartzen? Ezin al da egoera hau ekidini? N. URBIZU



## A Agurrak



**Urte askoan artista!**

**Aratz (Villabona).**

Gaur bi urte.

Zoragarria zara. Muxu pila.

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak